



# EDIKTUA

## TERRAZAK JARTZEKO 2018KO TASAK ALDATZEA

2018ko apirilaren 11an egindako Osoko Bilkurak honako hau erabaki du:

**Ordenantza fiskala, Herriko jabari publikoko lurzoruaren, hegalkinaren eta zorupearen erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteko tasak arautzen dituen**

Ostalaritzko terrazak:

\*30 euro/urtean mahai, mahaitxo edo kupela bakoitzeko (bankuak ez).

\*Festa patronaletan jartzeagatik edo kentzeagatik mahai bakoitzeko 5 euro/urtean gehitu edo kenduko da. Kasu honetarako ulertuko da festa patronalak hauek izango direla: San Kiriko, San Adiain, Amabirjinaren eguna, abuztuko festak eta feriak)

Hori dela eta, udalak esanda terrazak kendu behar dituzten tabernei mahai bakoitzeko urtean 25 euro kobratuko zaio. Adibidez, festetan edo betelako ekitaldiak daudenean.

Eskatutakoa baino mahai gehiago jartzen badira beste egunetan edo asteburuetan, mahai bakoitzeko urteko tasa orokorra ordaindu behar da 30 euro/urtean mahai bakoitzeko (edo 25, kasuaren arabera).

Etxarri Aranatz, 2018ko maiatzaren 8an  
ALKATEA, Eneka Maiz Ulaiar.

